

1.-BALOREZKO PROPOSAMENA

Jendeak kirola egiteko duen beharra asetzen dugu. Masajeen bidez jendearen osasuna hobetzeko zerbitzuak ere ematen ditugu masaje-zerbitzuen bidez.

Euskal kirolen garrantzia eta praktika, eta beste kiroldegietan egin ahal diren ekintza berdinak egiteko ahalmena prezio baxuagoan eta makineria hobetoagoan eta garatuagoan.

Gure enpresaren balioa kuantitatiboa da, hau da, prezioarekin jokatzeko dugula. Hortarako zenbait ekintza antolatzen ditugu; hala nola, padel txapelketa bat irabazteagatik hilabete bateko kuota ordaindu gabe egotea. Beste kiroldegiek ematen ez dituzten eskaintzak ematen ditugu.

Lehiakideengandik bereizten gara:

1. **Berritasuna:** Beste kiroldegiekiko berriak gara, jendeak ez daki nolako zerbitzuak eman ditzazkegun.
2. **Prestazioak:** Beste kiroldegiekiko prestazio hobeak ditugu, makineria berriena eta garatuena dugulako.
3. **Pertsonalizazioa:** Gure kiroldegiak duen pertsinalizazioa euskal kirolen erabilerak eragiten du. Garrantzia emango diegu euskal kirolei, eta bertako jendeari jokatzeko erakutsiko diegu.
4. **Prezioa:** Beste kiroldegiekiko prezio baxuagoak eskaintzen ditugu, eta eskaintza-bereziak egiten ditugu noizean behin.

Gure bezeroei ematen diegun zerbitzua kirola egiteko aukera ematearena da.

Beste kiroldegiekin prezioak alderatuz gero, gure kiroldegia merkeagoa da, eta zerbitzu hobeak ematen ditu. Gainera, zenbait ekintza antolatzen ditugu bezeroei hilabeteko kuota merkeago ateratzeko ekintzak burutuz.

